

UDAL KORPORAZIO OSOAK PLANTEATZEN DITUEN KONKLUSIOAK

Prozesuaren balorazioa

Ondorioetan murgildu aurretik esan nahi dugu orain arteko prozesua modu oso positiboan baloratzen dugula. Ez gaude ohituak modu komunitarioan herriarentzat garrantzizkoak diren gaietaz eztabaidatzera (batez ere ikuspegi ezberdinak daudenean), baina prozesu honetan uste dugu geure buruari demostratu diogula soraluzetarrok alkarrekin etorkizun hobe bat eraikitzeko gai garala.

Beraz, eskerrik asko hau posible egin dozuen herritar guztioi, eta hizlari gisa aritu zareten Gaizka Arangureni, Aranzadiko Alfredori, Ura Agentziako Rubeni eta GDiko Juan Carlosi.

Pare bat argipen

Dinamika honen hasieran esan genuen bukaerako datarik gabe zabaltzen genuela prozesua. Eta lehen fasearen itxierara heldu garenean esan dezakegu aurreikusten genuen bezala gaur ez dela eztabaida prozesua bukatuko.

Argi adierazi nahi dugu ere, udalak ez daukala inolako eskumenik ibai kudeaketarekiko (kasu berezia izan da GFAk Merlinekin planteatutakoa. Zeinak esan baitigu gure baiezkorik gabe ez dutela aktuaziorik egingo). Uholde kontuekin Ura Agentziak erabakitzen ditu ze aktuazio eta noiz egingo dituen. Ingurumen perspektiba aldiz europak markatutako direktrizek markatzen dute eta haiek garbi diote hurrengo urteetan ibaietako oztopoak kentzea lehentasunezko kontua izan behar duela ardura hori daukan instituzio ororentzat. Guk udal bezala prozesu honekin herritarren iritzia jasotzea dugu helburu. Guztion artean ateratako konklusioekin, herriarentzat ahalik eta egokienak izango liratekeen aktuazioen alde lan egiteko konpromezua adierazten dizuegu. Konklusioak eskumena daukaten eragileei helaraziz eta beraiekin batera gure herrirako proiektuak diseinatzeko borondatea erakutsiz.

Kontuan izan behar dugu ere, eztabaida honek Soraluzeko eraldaketa urbanistikoan eragiten duela. 2017an onartutako hirigintza planean ageri den bezala, Olaldea eta SAPAko birgaitzeak estrategikoak dira herriarentzat. Eta ibaiertzetako gune horiek duten uholde arriskua dela eta, URA Agentziak presen altuera jaisteko derrigortasuna ezarri zuen hirigintza planean.

Sarrera

Eztabaida prozesuaren lehen faseko ondorio orokorren proposamen bat eta herriko presa bakoitzeko proposamenak konklusioak aurkeztuko dizkizuegu. Gaurko saioan planteatuko dugunaren inguruko zuen iritzia jaso nahiko genuke eta adostasun zabalago ondorio horiek gestionatuko genituzke, eta kontsentsu zabalik ez balego ba berplanteatu beharko genituzke ondorioak.

ONDORIO OROKORRAK

Ondorio hauek eztabaida prozesuak utzi dizkigu eta erabaki konkretuak hartzeko oinarri gisa planteatzen ditugu.

- **Lehen ondorioa: Presak kaltegarri dira ibaiarentzat.**

Presak ez ziren eraiki ingurumenari mesede egiteko, baizik eta bestelako funtzio batzuetarako. Presak eraikitzeak ibaiaren izaera naturala artifizializatu zuen eta ondorioz ingurunea eraldatu egin zen. Nahi beste tematu gaitzke artifizializazio osteko biodibertsitatearen onuren bila, baina saldo totala negatiboa dela ebidentea dela uste dugu.

- **Bigarren ondorioa: Presek betetzen dituzten funtzio sozialak kontuan hartu behar dira.**

Ingurumeneko saldo negatibotik aparte, baloratzekoak dira presek ze aprobetxamendu sozial izan dituzten han eta hemen. Batzuk sortu zireneko funtzioak betetzen dihardute (energia sortzen jarraitzen duten presak adibidez), beste batzuen funtzioak eraldatu egin dira (funtzio ekonomikoetatik funtzio identitarioetara pasaz adibidez) eta beste batzuk funtziorik gabe daude gaur egun (batez ere eremu ez-urbanoetan aurkitzen dira horrelakoak).

- **Hirugarren ondorioa: Presek uholde arriskueta eragiten dute.**

Presak eta zutabedun zubiak oztopoak dira ibaiko ur emariarentzat. Uraren maila igotzea dakarte eta ondorioz, uholde arriskuak handitzen dituzte..

- **Laugarren ondorioa: Presen ondarea balioan jartzeko modu ezberdinak daude.**

Presen ondarea balioan jartzeko interbentzioak egin daitezke bai osorik mantenduta, bai partzialki eraitsita edota erabat eraitsita.

PRESA BAKOITZEKO PROPOSAMENAK

Ondorio orokorrak presaz-presa aztertuko ditugu. Presak ibaiarentzat kaltegarri direna ez dugu ekuazioan sartuko, ulertzen dugulako horrek ez daukala interpretazio partikularrik (beste gauza bat da norbait ados ez egotea ondorio horrekin).

PRESAK	Presek betetzen dituzten funtzio sozialak kontuan hartu behar dira.	Presek uholde arriskueta eragiten dute.	Presen ondarea balioan jartzeko modu ezberdinak daude.	KONKLUSIOAK
Olabarrena	Ur-lamina luzea da presa honek sortzen duena. iruditeri berezia da berau, Igarate-Malmerorenak daukan erreferentzialtasunik ez badauka ere.	Ur-agentziaren arabera aktuatu beharreko presa da. Gabolatseko zubiarekin egingo duten gisan, uholde arriskua jaisteko beharrezko ikusten dute presa ikutzea. Diputazioak Merlinekin planteatzen duen aktuazio eta Ur-Agentziarenaren artean ezberdintasunak daude.	Aranzadiren arabera ondarearen ikuspegitik, eraikuntza xumeak eta balio kultural txikikoak badira ere, Soraluzeko iragan industrialaren azken lekukotzetako bat dira. Erabat desagertzeak, gaur egun desagertuta dauden errotekin, burdinolekin edo barrenekin lotzen gaituen azken zubietako bat behin betiko galtzea ekarriko luke.	Bertako iruditeriak ez dauka Igarate-Malmerokoak adinako erreferentzialtasunik. Baina gaur egunean bi aktuazio ezberdin dauzkagu esku artean. Ura Agentziak planteatzen duena eta GFA-k Merline bitartez planteatzen duena. Bi eragileei eskatzen diegu proiektu bateratu bat aurkezteko.
Igarate-Malmero	Bertan bizi diren herritarrengandik aparte, herri erdian egotearen ondorioz, orohar soraluzetarrentzat erreferentziako iruditeria sortu du presak eragiten duen ur-laminak.	Ur-agentziaren arabera aktuatu beharreko presa da. GFA-k Merline bidez presan planteatzen duenaz gain, bestelako aktuazioak ere planteatzen ditu Ur-agentziak (Presatik gorantz 270 metroan sedimentuak erretiratzeko eta ibaiko eskuin ertzean ia 200 metroan luzetarako babesak).	Aranzadiren arabera ondarearen ikuspegitik, eraikuntza xumeak eta balio kultural txikikoak badira ere, Soraluzeko iragan industrialaren azken lekukotzetako bat dira. Erabat desagertzeak, gaur egun desagertuta dauden errotekin, burdinolekin edo barrenekin lotzen gaituen azken zubietako bat behin betiko galtzea ekarriko luke.	Erreferentziako iruditeria aldatuko lukeen aktuazioak planteatzen dira. Ur-agentziak agerraldian esan zuen, proiektu zehatza egin behar litzatekeela aktuazioaren eragin zehatza zein izango litzatekeen aztertzeke. Gaur egun iruditeriarekiko dagoen ziurgabetasuna ikusirik ez dugu uste baldintzarik dagoenik dauden eraldaketa planteamenduei bide emateko. Soraluzetarron iritzia, patrimonio balorean jartzea, ibaiaren bukaerako irudia kontuan izango litzatekeen proiektu bat egitera gonbidatzen ditugu ala dagokien erakundeak. Hori esku artean izatean berriz jarriko dugu mahai gainean eztabaida.
Olea	Presa hau zein sortzen duen ur-lamina ez dira erreferentziakoak. Ondorioz, ez da Soraluzeko iruditeriarekin lotuta ageri.	Uholde arriskuan eraginik ez duelako Ur-agentziak ez du kontenplatu aktuaziorik presa honentzat. Diputazioak Merlin proiektuaren bidez planteatzen duen aktuazioak, helburu ekologikoei erantzuten die.	Aranzadiren arabera Igarate zein Olabarrena baino ondare balio txikiagoa dauka Oleakoak.	Soraluzeko HAPOan ibai parke bat egiteko moduko lekutzat dago izendatuta. HAPOa onartu ostean ibai parkerako leku egokiagoa ikusi zen Liñazibarreko espazioa eta han hasi gara ibaiaz gozatzeko gunea eraikitzen. Hori kontuan izanik, inork presan aktuatu nahiko baluke udalaren partetik ez genuke erreparorik ipiniko. Bete izan zuen funtzioa azalduko lukeen panelen bat ipin daiteke gaur egun dagoen inguruan.
Zuloaga	Ez du funtzio sozial aipagarrik betetzen.	Uholde arriskuan eraginik ez duelako Ur-agentziak ez du kontenplatu aktuaziorik presa honentzat. Diputazioak Merlin proiektuaren bidez planteatzen duen aktuazioak, helburu ekologikoei erantzuten die	Aranzadik ez dio ondare balorerik eman.	Inork presan aktuatu nahiko baluke udalaren partetik ez genuke erreparorik ipiniko. Bete izan zuen funtzioa azalduko lukeen panelen bat ipin daiteke gaur egun dagoen inguruan.